

Donostian, 2019ko urriaren 31n

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

ZALDUNBORDAKO OUTLETARI BURUZKO MOZIO ARRUNTA

Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Aitzole Aranetak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, MOZIO hau aurkezten dut, Zaldunborda aldean outlet bat jartzea dela eta, Udalbatzan aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Hondarribiko udal Gobernuak, ekainaren 26an, 1134/2019 alkate dekretua eman zuen. Dekretu horren bidez, hasiera batean onartu zuen Plan Partzial bat, Higertoki SL enpresak sustatua, Zaldunborda Gaineko lursailak bestela antolatzeko. Hondarribiko udal gobernuak, beraz, Outlet Village bat eraikitzea erabaki du, Zaldunbordako lurzoru kutsatuetan. Proiektua onartu egin dute, ekainaren 27an Eusko Legebiltzarrak aho batez Lurralde Antolamenduko Legea aho batez onartu aurreko egunean, merkataritza gune berriak eraikitzea mugatzeko asmoz.

Ehun denda baino gehiago, 28.000 metro koadroko instalazio bat, 133 milioi euroko inbertsioa eta 1.800 automobil aparkatzeko lekua. Estatuan, Bartzelonak eta Madrilek besterik ez duen "outlet" herri bat. Proiektuaren ondorio negatiboen ondorioz, inguruko merkataritzari kalte konponezina eragingo diote, ingurunetik 250 km inguru batean, eta ingurumenari ere kalte larria eragingo diote.

Hurbileko merkataritzaren aldeko Gipuzkoako Dendarrean elkarteak dioenez, "Europar egindako ikerketa guztiak bat datoz: eredu horiek sortzen dituzten enpleguen bikoitza suntsitzen dute. Gainera, enplegu prekarioa bultzatzen dute eta lehia desleiala sustatzen dute, zentro horiek ez baitute gure lan hitzarmena aplikatzen, estatuarena baizik". Bestalde, Gipuzkoako merkatarien presidentek uste du hiriak garatzeko kaltegarriak direla: hirietako inbertsioak uxatzen dituzte eta hiriok basamortu bihurtzen, interes orokorraren aurkako hirigintza da".

Zaldunborda Jaizkibel mendiaren magalean dagoenez, proiektuak landazabaleko paisaia suntsitzea ekarriko luke, eta Natura 2000 Sarea babesten duen eremua arriskuan jarriko, Bidasoaldeko

Lagunak eskualdeko talde ekologistaren ustez, Zaldunborda Jaizkibel eta Aiako Harria lotzen dituen korridore ekologikoaren barruan dago. Horregatik, Jaizkibel arriskuan dago, Aiako Harriari lotuta egon behar baitu, eta landazabalak berebiziko garrantzia du horretan. Hori guztia galdu egingo litzateke, eta itzulezina litzateke, interes ekonomiko partikularren mesedetan".

Azken batean, Irungo Udalbatzak aho batez adierazi zuen bezala, 2017ko maiatzean, proiektuak oso ondorio ekologiko, mugikortasuneko eta ekonomiko negatiboak sortuko ditu.

Hondarribiko Macrooutleta luxuzko 100 eta 115 bat dendak osatuko dute, eta, dagoeneko, euren eskaintza bezeroei erakusteko guneak lortzeko lehian hasi dira. Merkatarien Elkarteak errezeloz eta nolabaiteko gaitzespenez begiratzen dio proiektu hori abian jartzeari, haren jarduerak eragin negatiboa izango lukeelako tokiko merkataritzan, eta, zehazki, Donostiakoan. Gainera, horrelako saltokietan jendaurreko ordutegia astelehenetik iganderakoa izaten da, 10:00etatik 22:00etara, urteko ia 365 egunetan. Donostiako merkataritzak eragin handia izango du makrooutlet hori egotearen ondorioz, ezin baitu lehiatu negozio eredu irrazional baten aurka. Prebenitu dezagun erakundeetatik, sendabidea jartzera behartuta egon beharrean.

Hori dela eta, honako hau egiten dugu

MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udalbatzak Eusko Jaurlaritzari hertsiki eskatzen dio Hondarribiko Udalarari eska diezaiola Zaldunbordako outlet proiektua kentzeko.

Aitzole Araneta Zinkunegi,
Elkarrekin Donostiaren bozeramailea.